



Arartekoaren 2024R-2802-23 Ebazpena, 2024ko otsailaren 7koa. Honen bidez, Bilboko Udalaren Etxebizitza Arloari atxikita dagoen Udal Etxebizitzak Toki-erakunde Autonomoari gomendatzen zaio beharrezko neurriak ezar ditzala etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea bermatzeko.

Aurrekariak

1. Arartekoak izapidetzerako onetsi zuen herritar batek aurkeztutako kexa. Bertan azaltzen zuen ez zegoela ados Bilboko Udal Etxebizitzak Erakunde Autonomoak egindako jarduketa batekin, gehiegi luzatzen ari baitzen aitortutako etxebizitza bat aldatzeko egindako eskaera.

Zehazki, kexagileak bere idazkian adierazi zuen guraso bakarreko hiru kideko bizikidetzaren unitatea osatzen duela, eta 17 urteko adingabe bat duela bere kargura. Halaber, aipatu zuen 2016an Bilboko udal etxebizitza baten adjudikazioduna izan zela.

Horri lotuta, esan zuen hainbatetan jakinarazi ziola Udal Etxebizitzak erakundeari etxebizitzak ez zuela bizikidetzaren unitateko kideek beren garapenerako behar duten adina azalera erabilgarririk. Etxebizitzaren azalera erabilgarria 39 m²-koa da soilik. Hori dela eta, aipatu zuen bere seme-alabetako batek egongelan lo egin behar duela.

Egoera horren ondorioz, kexagileak esan zuen 2021eko azaroaren 2an horren berri eman zuela Udal Etxebizitzak erakundean, eta etxebizitza aldatzeko eskatu zuela.

Hala eta guztiz ere, 2022ko urtarrilaren 19ra arte kexagileak froga bidez egiaztatu du toki erakunde autonomoaren erregistro batean eskaera bat aurkeztu zuela, non bere bizikidetzaren unitatearen egoera deskribatzen zuen, eta etxebizitzaz aldatzeko berariazko premia azaltzen zuen.

Azkenik, etxe aldaketaren eskariari erantzunez, 2022ko apirilaren 4an, garai horretan Udal Etxebizitzak erakundeko burua zenak aitortu zuen etxebizitzaz aldatzeko berariazko premia zuela, eta ebazpena jakinarazi zuen.

2. Hala eta guztiz ere, etxebizitza duin eta egoki bat eskuragarri jartzeko berandutzeak ikusita, 2023ko maiatzaren 16an kexagileak eskari berria aurkeztu zuen Udal Etxebizitzak erakundean.

Bertan, azaldu zuen etxebizitzan hezetasuna zegoela, eta errepikatu zuen familiako kideei espazioa falta zitzaiela egunerokotasuneko jarduerak egiteko. Era berean,





bere alabari buruzko parte medikoa aurkeztu zuen bere egoera fisikoaren berri emateko, eta hainbat agiri grafikoen bitartez erakutsi zuen etxebizitzaren hezetasun iraunkorrak hainbat arropa eta etxeko hormetan kalteak sortu zituela. Azkenik, bere etxebizitza aldaketaren espedientea zein egoeratan zegoen galdetu zuen.

Horri erantzunez, 2023ko maiatzaren 23an, Udal Etxebizitzak erakundeak kexagileari esan zion itxarote zerranda batean zegoela, eta ez zion esan zein postutan zegoen edo gutxi gorabehera zenbat denbora egon beharko zuen zerrandan azkenean udal etxebizitza egoki bat eskuratu arte.

Hala eta guztiz ere, bidalitako erantzunean ez ziren azaldu Udal Etxebizitzak erakundeak azken urtean aitortutako etxebizitza aldatzeko gauzatu zituen jarduketak.

Gainera, eskaria egin zuenetik bi urte igaro eta gero, kexagileak etxebizitza berean bizitzen jarraitzen du, eta ebazpen hau eman den egunean, Udal Etxebizitzak erakundeak ez dio etxebizitza berririk adjudikatu bere bizikidetzaren unitatearen ezaugarri bereziei erantzuteko.

3. Azaldutako egitateak ikusita, 2023ko irailaren 27an Arartekoak lankidetzaren eskaera bidali zion Bilboko Udalari.

Idazki horretan, Arartekoak galdetu zuen zergatik Udal Etxebizitzak erakundeak ez zuen behar bezala bete 2022ko apirilaren 4an bertako buru zenak emandako ebazpena.

Era berean, Arartekoak esan zuen jakin nahi zuela zeintzuk ziren Udal Etxebizitzak erakundeak 2022ko urtarrilaren 19an etxebizitza aldatzeko eskaera onartu zuenetik gauzatu zituen jarduketa zehatzak.

Azkenean, Arartekoak esan zuen jakin nahi zuela zein zen Udal Etxebizitzak erakundeak aurreikusten zuen gutxi gorabeherako epea bermatzeko kexagileak eta bere bizikidetzaren unitateak etxebizitza duin eta egokia izateko duten eskubidea betetzen dela.

4. Laguntza eskaeraren erantzun gisa, 2023ko urriaren 13an, erakunde honetako erregistroan Etxebizitza zinegotzia eta Udal Etxebizitzak erakundeko burua denaren eta bere zuzendariorde operatibo juridikoaren erantzuna jaso zen.

Horri lotuta, txosten horretan laburki hauxe azaldu zuten:

"...esta solicitud se encuentra a la espera de que Viviendas Municipales disponga de una vivienda vacante, asignada al programa de cambio de vivienda y adecuada para su tamaño familiar y de que su solicitud sea la más antigua de entre las que sean seleccionadas como aptas para dicha vivienda, sin que se pueda prever dicha circunstancia."





5. Horrenbestez, beharrezko egitateak eta zuzenbide elementuak daude, eta horregatik honako gogoeta hauek egiten dira:

Gogoetak

1. Etxebizitza izatearen eskubidea nahitaez lotu behar zaio duintasun kontzeptuari. Hori dela eta, botere publikoek etxebizitza duin bat eskuragarri jartzen dutenean, une oro bermatu behar dira parke publikoa osatzen duten higiezin kalitate eta egokitzapeneko betekizun oinarritzkoenak.

Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak halaxe dio Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean, EAE) etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea eratzen duenean.

Zehazki, Etxebizitza Legearen 1. artikulua dio botere publikoek etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea egikaritzeko neurriak sustatu behar dituztela, eta bereziki kontuan hartzen ditu irizpide hauek:

“Etxebizitza egoitza, bizileku edo etxe egonkorra izatea, eta haren hartzaila edo erabiltzaileek modua edukitzea bertan duintasunez bizitzeko, beren intimitatea babesteko eta familia- eta gizarte-harremanez gozatzeko, hura okupatu eta erabiltzeko legezko eskubidea dutelari

Tamainari dagokionez, bertan biziko den pertsona, familia edo bizikidetzaren ezaugarrietarako egokia izatea, horien bizitzako aldiak eta bizitegi-premiak kontuan hartuta eta gizonen eta emakumeen arteko tratua eta aukera-berdintasuna errespetatuta

Erakinen antolamenduari buruzko legerian eta aplikatu beharreko araudi teknikoan aurreikusitako baldintza objektiboak betetzea, funtzionaltasunari, bizigarritasunari, segurtasunari eta osasungarritasunari dagokienez”.

Orain arte azaldutakoarekin jarraituz, Etxebizitza Legearen 2. artikuluan jasotako etxebizitza politikaren printzipio gidarien artean hauxe azpimarratu nahiko luke Arartekoak:

“Bizi-ziklo bakoitzean bizilagunen egoerara ondoen egokitzen den etxebizitza lortu edo bertan egoteko modu legala hautatzeko askatasuna sustatzea.”

Testuinguru berebean, Etxebizitza Legearen 3. artikulua dio etxebizitza baten erabilera egokia dela bere gizarte eginkizuna betetzen duen hori, hau da, *“etxebizitzaren tamainaren eta ezaugarrien arteko loturarekin eta erabiltzaileekin bat datorrena, hala, bizilagunik gabeko edo gainokupazioko egoerarik sor ez dadin”.*





Egiaz, etxebizitza duina eta egokia izatea bermatzea hain garrantzitsua da, ezen Etxebizitza Legearen 4.2 c) artikulua baitio etxebizitzari esleitzen zaion gizarte eginkizuna urratuko dela gainokupatuta dagoen etxebizitza bat detektatzen denean.

2. Azken kontu horrekin lotuta, Etxebizitza Legearen 62. artikulua berariaz definitzen du gainokupatuta dagoen etxebizitza, modu honetan: *"han bizi direnen kopurua handiagoa bada bertarako egokitzat jotzen den gehieneko kopurua baino, kontuan hartuta bizigelen azalera, kopuru eta neurria eta etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak"*.

Hala, EAE osorako etxebizitzen eta zuzkidura bizitokien gutxieneko bizigarritasun baldintzak zehaztu eta bateratzeko onetsi zen Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzen eta zuzkidura bizitokien gutxieneko bizigarritasun baldintzak eta diseinu arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretua.

Hemen interesekoa zaigunerako, 5. artikuluan ezarrita dago 3 bizilaguneko etxebizitza edo bizitoki bat gainokupatuta dagoela haren azalera erabilgarria 50 m² baino gutxiagokoa denean.

Azaldutakoarekin bat etorritz, Arartekoak gogorarazi nahi du Etxebizitza Legearen 83 d) artikulua dioela gainokupatuta dagoen etxebizitza bat dagoela egiaztatzea arau hauste larria dela eta 90.1 artikulua betez, 20.001 eta 300.000 eurora arteko zehapena jarri daitekeela horrengatik.

Gainera, Etxebizitza Legearen 86. artikulua helburua da sailkatutako administrazio arau hausteengatik zehatu ahal izatea pertsona fisiko edo juridiko arau hausleak, ez gordetzeagatik bada ere.

Azaldutako guztiaren ondorioz, baieztatu dezakegu gainokupazioa EAEko etxebizitza eta bizitokien erabilera anomaloa dela, eta botere publikoek horrelako egoerak ekiditeko beharrezko neurri guztiak hartu behar dituztela.

3. Ebazpen honen aurrekarietan esan dugun bezala, 2022ko urtarrilaren 19an kexagileak etxebizitza aldaketa eskatu zuen orduan aplikatzekoa zen Udal Etxebizitzak erakundeko Arautegi Orokorren 59. artikulua aplikatuz.

Toki erakunde autonomoaren zuzendaritzak eskari horri erantzunez, garai hartako buruak etxebizitza aldaketa onetsi zuen, egiaztatu baitzen kexagilearen bizikidetzaren unitatea hiru kidek osatzen zutela eta etxebizitzaren azalera erabilgarria 39 m² eskasekoa zela.

Horretaz gain, Arartekoak egiaztatu du aldaketa aitortu eta urtebetera erantzunik jaso ez zuenez, kexagileak 2023ko maiatzaren 16an izapidetze egoeraren inguruko informazioa eskatzeaz gain, berriro ere eskatu zuela aldaketa erabakia berehala gauzatzeko.





Azaldutako guztia gorabehera, etxebizitza gainokupatuta zegoela argi eta garbi egiaztatu arren eta kexagileak eskaria egin zuenetik bi urte inguru igarota, Arartekoak ez du Udal Etxebizitzak erakundeak egindako inolako etxebizitza aldaketaren berririk.

Gauzak horrela, Arartekoak uste du botere publikoek egiaztatzen dutenean babes publikoko etxebizitza bat gainokupatuta dagoela, argi eta garbi urratzen dela etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, ondoren azaltzen saiatuko garen bezala.

4. Udal Etxebizitzak erakundeak bere erantzunetan laburki azaldu du bakarrik kexagilea itxarote zerrendan dagoela bizikidetzat *“etxebizitza huts bat erabilgarri egon arte”* eta *“bere eskaria onartzen diren guztien artean zaharrena izan arte”*.

Hala eta guztiz ere, Udal Etxebizitzak erakundeak sekula ere ez dio esan zein postutan dagoen itxarote zerrendan eta zein den etxebizitza aldaketak gauzatzeko behar izaten duten batez besteko denbora, modu horretan, interesdunak informazio hori gardentasun osoarekin eskuratzeko.

Administrazio izapidetzean behar bezalako arreta edo zaintza izateko betebeharra administrazio ona izateko eskubidearen funtsezko alderdia da. Hori hala izanda, Auzitegi Gorenak honako hau adierazi du:

- “Este deber constitucional de buena administración, que rige plenamente en los procedimientos (...), exige que las Administraciones Públicas respeten el deber de motivación y los principios de objetividad, transparencia y racionalidad, conforme a lo dispuesto en los artículos 35 y 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.”¹

Arrazoi horrengatik, itxarote zerrendan duen postuari edo bere eskaeraren antzinatasunari buruzko informazio nahikorik ez duenez, interesduna zalantza beteta dago Udal Etxebizitzak erakundea ahalik eta azkarren gainokupazioko egoera ekiditeko gauzatzen egon daitekeen jarduketak ezagutzeari dagokionez.

Hala, jardunbide horiek eragotzi egiten dute herritarrek argi, zehatz eta berariaz jakitea zein den planteatu dutenari buruz administrazioak duen asmoa eta hori oinarritzen duen argudioa, eta herritarrei ez die aukerarik ematen jakiteko administrazioak zer argudio oinarri erabili duen eskatutakoa ez onartzeko.

Horrengatik guztiarengatik, itxarote zerrendan duten postuaren inguruko informazio faltak eta Udal Etxebizitzak erakundeak etxebizitzak gainokupatuta egotea ekiditeko gauzatu dituen jarduketan berri ez izateak interesdunei galarazten die

¹ **Auzitegi Gorenak.** 505/2021 Epaia, apirilaren 14koa. [[ECLI:ES:TS:2021:1387](#)]



benetan jarraitu eta kontrolatu ahal izatea berariaz etxebizitza aldaketa onartzen dien erabakia.

5. Orain arte azaldutakoarengatik, eta ikuspegi juridiko material batetik, azpimarratu beharra dago Giza Eskubideen Europako Auzitegiak azaldu duen bezala, eskatzaileen beharrei behar bezala erantzungo dien etxebizitza parke publikorik ez egotea ez dela nahikoa arrazoia etxebizitza egoki bat eskura ez jartzeko.

Hain zuzen ere, inguruabar hori Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2015eko apirilaren 9ko epaian aztertu zen (*Tchokontio Happi v. Frantzia kasua*²). Ildo horretan, egia bada ere epaitze parametroaren xedea dela benetako babes judiziala urratzea epai irmo bat ez betearazteagatik, bertan aipatzen diren egitateek antzekotasun egiaztatuak dituzte aurkeztutako kexarekin.

Izan ere, epaitegien kasuan, nahiz eta kexagileari judizialki aitortu zitzaion etxebizitza sozial batean bizitzeko eskubidea zuela, hiru urte baino gehiago igaro ondoren, ez zitzaion proposatu etxebizitzarik adjudikatzea. Gobernuak adierazi zuen ezin zuela bere betebeharra bete, Paris inguruan etxebizitza gutxi zeudelako. Lege betebehar hori ez betetzearen ondorioz, administrazioak isun bat ordaindu zuen, eskatzaileak etxebizitza soziala disfrutatu ez zuen denboraren proportzioko zenbatekoa zuena.

Azkenik, azaldutako egitateak ikusita, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ondorioztatzen du, behin eta berriz errepikatutako jurisprudentziaren arabera, ez dela onargarria Estatuko agintaritzak batek Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean aitortutako eskubide indibidualak ez betetzeko eragozpen gisa bitarteko falta argudiatzea (ildo beretik, ikus *Burdov v. Errusia*³ eta *Société de Gestion du Port de Campoloro eta Société fermière de Campoloro v. Frantzia*⁴ auzien epaiak).

6. Aurretik aipatutakoari jarraituz, Arartekoak azpimarratu nahi du Gizarte Eskubideen Europako Batzordeak ezartzen duela estatuek bermatu egin behar dutela herritar guztiek etxebizitza duina izatearen eskubidea, hau da, osasun ikuspegitik egitura segurua duena, eta gainokupatuta ez dagoena⁵.

Gainera, ez dugu ahaztu behar etxebizitza duina izateko eskubidea estuki lotuta dagoela familiaren babes sozial, legal eta ekonomikoarekin (Europako Gizarte

² **Giza Eskubideen Europako Auzitegia.** Tchokontio Happi v. Frantzia kasua 2015eko apirilaren 9ko epaia. Hemen eskuragarri: <http://hudoc.echr.coe.int/eng?i=001-153479>

³ **Giza Eskubideen Europako Auzitegia.** Burdov v. Errusia Kasua. 2002ko maiatzaren 7ko epaia. Hemen eskuragarri: <http://hudoc.echr.coe.int/fre?i=001-60449>

⁴ **Giza Eskubideen Europako Auzitegia.** Société de Gestion du Port de Campoloro eta Société fermière de Campoloro v. Frantzia kasua. 2006ko irailaren 26ko epaia. Hemen eskuragarri: <http://hudoc.echr.coe.int/eng?i=001-77005>

⁵ **Gizarte Eskubideen Europako Batzordea.** 2003, Frantzia ondorioak, Europako Gutun Sozialaren 31.1 artikuluari buruz. Hemen eskuragarri: <https://hudoc.esc.coe.int/eng?i=2003/def/FRA/31/1/EN>

Gutunaren 16. artikulua). Horri lotuta, Gizarte Eskubideen Europako Batzordeak esan du etxebizitza egoki batek oinarrizko zerbitzuak izatea beharrezkoa izan arren, nahitaezkoa dela baita ere etxebizitza horren tamaina egokia izatea, bertan bizi den familiari egokituta⁶.

Azkenik, Gizarte Eskubideen Europako Batzordeak gogorarazi du estatu kideek neurri praktiko eta legezko egokiak ezarri behar dituztela eraginkorki babesteko familiak etxebizitza bat izateko duen eskubidea, eta arrazoizko epe batean eta eskuragarri dauden baliabide guztiekin eskuratu behar dutela etxebizitza⁷.

7. Orain arte argudiatu den guztiari, gainera, zenbait ohar erantsi behar zaizkio, logela bakarreko etxebizitza horretan bizikidetzatza unitatearen parte den adingabe bat bitzeari dagokiona.

Horri buruz, etxebizitza egokiari buruzko errelatore bereziak hala adierazi zuen: *“los Estados deben garantizar el derecho de los niños a una vivienda adecuada, entre otras cosas aplicando el principio del interés superior del niño”*⁸.

Izan ere, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena sinatu zuten estatuek hura betetzen dutela egiaztatu behar duen organoa da Haurren Eskubideen Batzordea; gainera, jarraibideak eman behar ditu hitzarmen hori behar bezala interpreta dadin hura ezarri behar den eremu guztietan. Batzorde horrek, 2013an, 14. Ohar Orokorra egin eta onetsi zuen; ohar horrek ezartzen du haurrak eskubidea duela bere interes gorena lehentasunez kontuan hartua izan dadin⁹.

Ohar orokor horrek ezartzen ditu haurren (eskubideen titular diren heinean) interes gorena behar bezala kontuan hartzeko betekizunak. Haurren interes gorena kontuan hartu beharra dago, batik bat, erabaki judizialean eta administratiboetan, eta haurrei individualki eragiten dieten neurrietan; bai eta haur guztiei edo haur jakin batzuei buruzko legeak, politikak, estrategiak, programak, planak, aurrekontuak, legegintza zein aurrekontu ekimenak eta jarraibideak onesteko prozeduren etapa guztietan ere.

⁶ **Gizarte Eskubideen Europako Batzordea.** European Roma Rights Centre (ERRC) Greziaren aurka, 15/2003 demanda, 2004ko abenduak 8, 24. paragrafoa. Hemen eskuragarri: <https://hudoc.esc.coe.int/eng/?i=cc-15-2003-dmerits-en>

⁷ **Gizarte Eskubideen Europako Batzordea.** Giza Eskubideen Nazioarteko Federazioa (FIDH) Belgikaren aurka, 62/2010 demanda, 2013ko martxoak 21, 113. paragrafoa). Eskuragarri hemen: <https://hudoc.esc.coe.int/eng/?i=cc-62-2010-dmerits-en>

⁸ **Nazio Batuen Erakundea. Batzar Nagusia.** Etxebizitza egokia izateko eskubidea ezartzeko gidalerroak. Errelatore Bereziaren txostena etxebizitza egokiari buruz, bizi maila egokia edukitzeko eskubidearen eta eskubide horrekiko bereizkeria ez jasateko eskubidearen elementu integratzaile gisa. 48.i) parag. Hemen eskuragarri: https://ap.ohchr.org/documents/dpage_s.aspx?s=35

⁹ **Nazio Batuen Erakundea. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena. Haurren Eskubideen Batzordea.** 14. Ohar orokorra (2013), zeinak ezartzen duen haurrak eskubidea duela bere interes gorena lehentasunez kontuan hartua izateko (3. artikulua, 1. paragrafoa). Hemen eskuragarri: http://www2.ohchr.org/English/bodies/crc/docs/GC/CRC.C.GC.14_sp.pdf



Batzordeak azpimarratu du adin txikikoaren interes gorena eskubide subjektiboa dela, hau da, oinarrizko interpretazio printzipio juridikoa eta prozedura arau bat. Horrek esan nahi du haur bati eragiten dion erabaki bat hartu behar den guztietan, erabakiak hartzeko prozesuan erabakiak haurraren izan ditzakeen ondorioen (positiboak edo negatiboak) balioespena egin beharko dela. Erabakien justifikazioak argi utzi beharko du berriaz hartu dela eskubide hori kontuan, eta haurraren interesak zaindu direla beste gogoeta batzuekin alderatuz. Azken batean, haurraren interes gorena kontuan hartzeak haurraren beharrezkoak egoki neurtzea dakar.

Arartekoak ez du uste Udal Etxebizitzak erakundeak bidalitako erantzunetan arreta berezirik jarri zaienik udal etxebizitzan bizi den adingabearen eskubideei.

Hala eta guztiz ere, Udal Etxebizitzak erakundeak ezin du ahaztu Haurraren Eskubideen Batzordeak, haurren eskubideak nerabearoan ezartzeari buruzko Ohar Orokorrean, zehaztu duela haurrak hamar urte dituen hasten dela nerabearoan eta hor hasten dela haurtzarotik helduarora bitarteko bidea¹⁰. Testuinguru horretan, Batzordeak adierazten du pribatutasuna geroz eta garrantzitsuagoa dela adin horretan.

Puntu jakin honetan, Arartekoak gogorarazten du kexagileak bere idazkian azaldu zuela bere semeetako batek egunero egongelan lo egiten duela, guztientzako ez baitago nahikoa logela ezta espaziorik ere.

8. Oro har, Arartekoak positibotzat jotzen du Udal Etxebizitzak erakundeak etxebizitza duin, egoki eta irisgarria legez okupatzeko eskubide subjektiboa bermatzeko egindako ahalegina.

Hala eta guztiz ere, azaldutako guztia ikusirik ez da arrazoizkoa tokiko erakunde autonomoak aitorten hori gauzatu ez izana, jakinik etxebizitza gainokupatuta zegoela eta birkokatzeko eskaera egin zenetik bi urte inguru igaro eta gero.

Udal Etxebizitzak erakundeak gainokupazioaren egoera bat baieztatzen denean ematen duen erantzuna ezin da izan prozesua bi urtean luzatzea eta interesdunei ez azaltzea zer egiten ari diren etxebizitza egoki bat bilatzeko edo zein den etxebizitza behin betiko aldatzeko duten posizioa.

Arartekoak badaki Udal Etxebizitzak erakundeak gainokupatuta dauden udal etxebizitzetan bizitzen ari diren familiei etxebizitza egokia berandu ematen diela

¹⁰ **Nazio Batuen Erakunde. Haurraren Eskubideen Batzordea.** 20. ohar orokorra (2016), haurren eskubideak nerabearoan ezartzeari buruzkoa. Hemen eskuragarri: <https://docstore.ohchr.org/SelfServices/FilesHandler.ashx?enc=6QkG1d%2fPPRiCAqhKb7yhsqIkirKQZLK2M58RF%2f5FOvH%2bg0BeHNYSXI2ulaeIW9Y1jn%2ba4Z2iaNPMKIJhsvzg%2bJKOrQeoRE7vfMUMHawFfQYybp%2b06K%2fKawf3HS3T64R>



gaur egun Bilboko eskariari zuzen erantzuteko ez dagoelako etxebizitza parke nahikorik.

Hori dela eta, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du Udal Etxebizitzak erakundeak eta etxebizitzaren politika publikoetan zuzenean esku hartzen duten gainerako botere publikoek lan gehiago egin dezatela etxebizitzaren parke publikoa handitzeko.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Azaldutakoarekin bat, Udal Etxebizitzak erakundeak beharrezko neurriak har ditzala kexagileari eta bere bizikidetzaren unitateari dagokien etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea bermatzeko.

Edonola ere, Udal Etxebizitzak erakundeak sakonago azaldu behar ditu erantzunetan ematen dituen arrazoiak, etxebizitza aldaketa aitortua duten errentarietokiko erakunde autonomoa egiten ari den jarduketan eta itzarote zerrendan izan dezaketen postuaren inguruko informazioa eskatzen dutenean.

